# SASIOLA

## ERDI AROKO DORREA FRANTZISKOTARREN KOMENTU
## DE TORRE MEDIEVAL A CONVENTO FRANCISCANO



*Sasiolako dorre zaharraren irudi idealizatua. Ondoan, ontziola. Imagen idealizada de la antigua torre de Sasiola. Junto a ella, el astillero.*

Natura-, kultura- eta arkeologia-balio handiko inguru hauetan aurkitutako aztarnek erakusten dute badirela 200.000 urte gizakia hemen finkatu zela. Bide, ubera eta ibaiaren bi ertzak lotzen dituzten zubiei esker Sasiola topaleku garrantzitsua izan da. Izan ere, Deba ibaia merkataritza-bide nagusietako bat izan zen mendeetan zehar (XV-XVII) artilea eta burdin minerala Debako portura garraiatzeko.

### Sasiolatarrak

Sasiola leinuaren jatorria hiribildua sortu baino lehenagokoa da; Euskal Herriko eta Gaztelako Erresumako Erdi Aroko familia boteretsuenetako bat, hain zuzen. Familiaren armarrian agertzen diren San Antonen gurutze gorriak eta hiru hirusta berdeek San Anton eta San Frantziskorekiko zuten debozioa islatzen dute.

Maria Ibañez de Sasiola eta Juan Perez de Licona 1458an ezkondu eta dotetzat jaso zituzten lur hauek; bertan zeuden oinetxea, ontziola, biltegiak, irin-errota eta Andre Maria Errukiorraren ermita.

### Sasiolako frantziskotarren komentu-ospitalea



*Garai batean klaustroa zegoen komentuaren ingurua. Zona del convento donde antiguamente se situaba el claustro.*

1500 inguruan, frantziskotarrek komentu bat sortu nahi izan zuten Itziarko santutegiaren ondoan sasiolatarren laguntzarekin, baina kabildo eklesiastiko eta sekularrak aurka zeudenez, Sasiolako lurretara lekualdatzea erabaki zuten. Hala, 1503ko uztailaren 31n, frantziskotarrei Andre Maria Errukiorraren ermita eta haren inguru guztia eman zieten. Handik gutxira, komentua eraikitzen hasi ziren, Gipuzkoako frantziskotarren bigarrena, Arantzazukoaren ondoren.

Eliza, klaustroa, eta beste hainbat gela zituen komentu-multzoak. Besteak beste, kapitulu-gela, jantokia eta gelaxkaz betetako hiru solairu; baita sindiko edo administratzailearentzako etxe bat ere (egungo Sindika baserria). Aurreko zelaian, pilota jokoa zegoen. Maldan gora, berriz, baratzeak, ospitale zaharra eta kanposantua.

Inguruko bizilagunek San Frantziskori zioten miresmena hain handia zen, hainbat pertsona ezagunek frantziskotarren abituarekin lurperatuak izateko nahia adierazi zutela beren testamentuetan. Juan Sebastian Elkanok ere Sasiolako San Frantzisko komentuari 10 dukat emateko borondatea adierazi zuen berean.

Sasiola erreferentzia-gune garrantzitsu bihurtu zen Donejakue bidean. Jende asko etortzen zenez, komunitateak arreta berezia eskaini behar izan zion ospitale-etxeari; 20 erlijioso izatera iritsi ziren, gaixoen eta erromesaldian pasatzen zirenen zaintzaz arduratzen zirenak.

Gaur egun ere, ekainaren 13an, San Antonio egunean, meza eta erromeria ospatzen dira. Duela urte batzuk arte festa egun garrantzitsua izaten zen, eta ohitura zen ezkongai gazteek Santuaren fardelaren lokarriari tira egitea senargaia eskatzeko.

### Eliza

Nabe bakarreko eraikin angeluzuzena da, eta traza gotiko berantiarreko izar-gangak ditu, elkarren artean lotuta. Barrualdean, intxaur egurrezko erretaula barrokoa nabarmentzen da, balio arkitektoniko handiko pieza aparta. Andrés de Goicolea debarraren enkarguz egin zen 1763an, Tomás de Jaureguik diseinatu eta Francisco de Iberok osatu zuen, eta Domingo de Laca eta Domingo de Pellónek gauzatu zuten.

Elizaren kanpoaldea xumea eta soila da; deigarriak dira kanpai-horma txikia, kontrahormak eta klaustroaren fatxadako arbotantea.

1840an, lehen gerra karlista amaitu zenean, fraideek behin betiko utzi zuten komentua. Erabilerarik eta jabe argirik gabe, eraikinak behera egin du poliki-poliki. XX. mendearen erdialdetik aurrera egindako sendotze-lanek, ordea, zutik mantentzea ahalbidetu dute.

Probintziako Monumentu da 1964az geroztik; 2000. urtean, Santiago Bideari lotutako monumentu-multzo izendatu zuten. Egun, elizarena da.



### Pilota jokoa

Gaur egungo frontoien aurrekaria da, eta ziurrenik, Euskal Herriko pilota jokorik zaharrenetakoa, XVI. mende amaierakoa edo XVII. mende erdialdekoa izan baitaiteke. Bertan, bote luzearen antzeko modalitatea jokatzen zen. Kantxak 58 metro luze eta 12 metro zabal zituen eta frontisak 12 metro zabal eta 3 metro garai. Egun, oso hondatuta dago; hala ere, ibaira ematen duen hegaleko hormatxoan epaileak esertzen ziren antzinako mahaia ikus daiteke.

### Komuneroen gotorlekua

Gaztelako Komunitateen Gerran (1520-1522), Sasiola Gipuzkoako komuneroen bilgune garrantzitsua izan zen, eta haien artean bi debar nabarmendu ziren: Olano batxilerra eta Pedro Elorriaga fraia. Azken hori Sasiolako komentuko fraidea zen, eta Gipuzkoako bi ordezkarietako bat izan zen Tordesillaseko Komuneroen Batzorde Santuaren aurrean.

Gipuzkoa zatituta geratu zen: alde batetik zeuden probintziako prerrogatiben eta lege zaharren alde borrokatzen zutenak; eta, bestetik, enperadorearen aldekoak. Deba komuneroen artean zegoen.



*Erdi Aroko dorrea eraldatu ondorengo komentua eta haren instalazioak. El convento y sus instalaciones después de la transformación de la torre medieval.*

En un entorno de gran valor natural, cultural y arqueológico, con vestigios que atestiguan la presencia de asentamientos humanos desde hace 200.000 años, Sasiola ha sido un punto de encuentro. Paso de caminos, vado y lugar de puentes que comunican las dos orillas del río Deba, que durante siglos (XV-XVII) fue una de las principales vías mercantiles para el transporte de lanas y mineral de hierro al puerto de Deba.

### Los Sasiola

Los orígenes del linaje de Sasiola son anteriores a la fundación de la villa; corresponde a una de las familias medievales más poderosas de todo el País Vasco y del Reino de Castilla. En su escudo de armas, la cruz de San Antón en rojo y los tres tréboles verdes reflejan la devoción de la familia hacia San Antón y San Francisco.

María Ibañez de Sasiola y Juan Pérez de Licona recibieron como dote, en 1458, estas tierras que contaban con la casa solar, un astillero, almacenes, un molino harinero y una ermita: la de Nuestra Señora de la Piedad.

### El convento hospital de San Francisco de Sasiola



*Elizako erretaula. Retablo de la iglesia.*

Hacia 1500, la comunidad franciscana intentó fundar un convento junto al santuario de Itziar con el apoyo de los señores de Sasiola, pero ante la oposición de los cabildos eclesiástico y secular, decidieron trasladar su ubicación al “Sitio y Astillero de Sasiola”. Así, el 31 de julio de 1503, cedieron a los franciscanos la ermita de Nuestra Señora de la Piedad y todo su entorno. Poco después comenzaría la construcción del segundo convento de franciscanos de Gipuzkoa, posterior al de Arantzazu.

El complejo estaba compuesto por la iglesia y su claustro, así como por otras dependencias que incluían la sala capitular, el refectorio (comedor) y tres pisos de celdas. Contaba además con una casa para el síndico o administrador (actual caserío Sindika). En la campa situada frente a ésta se situaba el juego de pelota, y ladera arriba se encontraban las huertas, el antiguo hospital y el cementerio.

El fervor a San Francisco de los y las vecinas del entorno era manifiesto. Personajes de raigambre mandaban en su testamento el deseo de ser amortajados y enterrados con el hábito de esta orden. Incluso Juan Sebastian Elkano expresó su voluntad de donar 10 ducados a este convento.

Sasiola se convirtió en un importante punto de referencia en el Camino de Santiago; acudía tanta gente que la comunidad se vio obligada a prestar especial atención a la casa hospital, llegando a contar hasta con 20 religiosos para el cuidado de las personas enfermas y de las que pasaban en peregrinación.

Aún hoy, el 13 de junio, día de San Antonio, se celebra misa y posterior romería, efeméride que durante años tuvo interés e importancia y donde era costumbre que las jóvenes casaderas tiraran del cordón del Santo, pidiendo que les concediera novio.

### La iglesia

Edificio rectangular de una sola nave con bóvedas estrelladas de traza gótica tardía enlazadas entre sí. En su interior destaca el retablo barroco de madera de nogal, una pieza excepcional de gran valor arquitectónico. Realizado por encargo del debarra Andrés de Goicolea en 1763, fue diseñado por Tomás de Jauregui y completado por Francisco de Ibero, y su ejecución corrió a cargo de Domingo de Laca y Domingo de Pellón.

El exterior es sencillo y austero; llaman la atención su pequeña espadaña, los contrafuertes y el arbotante situado en la fachada del claustro.

En 1840, terminada la primera guerra carlista, los frailes abandonan definitivamente el convento. Sin uso y sin un claro propietario, el conjunto comienza a desmoronarse lentamente.

Las intervenciones de fortalecimiento y consolidación realizadas desde mediados del siglo XX han permitido que el edificio siga en pie. Monumento Provincial desde 1964; en el año 2000, es declarado Conjunto Monumental afecto al Camino de Santiago. Actualmente pertenece a la iglesia.



### El juego de la pelota

Predecesor de los actuales frontones, es probablemente uno de los “juegos de pelota” más antiguos de Euskal Herria. Podría datarse hacia finales del siglo XVI o mediados del XVII. En él se practicaba una modalidad parecida a la conocida como “bote luzea”. La cancha tiene unas medidas de 58 metros de largo por 12 de ancho, y el muro o “frontis” 12 de ancho y 3 metros de alto. Actualmente en estado ruinoso, en el murete situado en la banda que da al río se conserva la primitiva mesa en la que se sentaban los jueces.

### Bastión comunero

Durante la Guerra de las Comunidades de Castilla (1520-1522), Sasiola fue un importante centro de reunión de los comuneros gipuzkoanos, entre los que destacaron dos debarras: el bachiller Olano y fray Pedro de Elorriaga. Este último, fraile del convento de Sasiola, fue uno de los dos representantes gipuzkoanos ante la Santa Junta Comunera de Tordesillas.

Gipuzkoa quedó dividida entre las poblaciones que luchaban por las prerrogativas y viejas leyes de la provincia y las que apoyaban al rey-emperador; Deba se encontraba entre las comuneras.

*Debako komuneroak: Olano batxilerra eta Pedro Elorriaga fraia.*
*Los comuneros debarras: el bachiller Olano y Fray Pedro de Elorriaga.*


**Bibliografia-Bibliografía:**
- Aldabaldetrecu, Francisco: *Sasiola y su iglesia convento*. Deba aldizkaria, Negua 89.
- Aldabaldetrecu, Francisco: *Monasterio de Sasiola*. Deba aldizkaria, Negua 2000.
- Aldabaldetrecu, Roque: *Sasiola Convento y Hospital*. Debako Udala, 2002.
- Turrillas, Alex y Treku, José Ignacio: *Deba, ibilaldi bat gure historian zehar*, 2015.


*Informazio gehiago:* *Para más información:*


Geoparkea Costa Vasca - Euskal Kostaldea
Geoparks
Organización de las Naciones Unidas para la Educación, la Ciencia y la Cultura · Costa Vasca Geoparque mundial de la UNESCO
Hezkuntza Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundea · Euskal Kostaldea UNESCOren munduko Geoparkea
Debako Udala
Euskadi Basque Country
Gipuzkoa Turismoa
Deba Barrena
TURRI komunikazioa (675 00 96 33 - Deba)